



BUSTURIALDEA



Landa Garapeneko Eskualde Programa

2007-2013



LANDA GARAPENEN PROGRAMA

AURKIBIDEA:

1. SARRERA

1.1. DOKUMENTUAREN AURKEZPENA

1.2. METODOLOGIA

2. AURREKARIAK, AURREKO LGP-RI BURUZKO BALORAZIOA

3. EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

3.1. ESKUALDEAREN AURKEZPENA

3.1.1. Kokapena

3.1.2. LGP-ren eremua

3.1.3. Eskualdearen deskripzioa

3.2. AMIA AZTERKETA

3.3. LEHIAKORTASUNERAKO ABANTAILAK ETA FAKTORE KRITIKOAK

4. ESKUALDE GARAPENAREN IKUSPEGIA

5. PLANGINTZA

5.1. ARDATZAK, HELBURUAK ETA ESTRATEGIAK

5.2. PLANGINTZAREN KOADRO NAGUSIA

1. SARRERA

1.1. DOKUMENTUAREN AURKEZPENA

Dokumentu honetan jasotzen dira **BUSTURIALDEA** eskualdean **Landa Garapeneko Programa** berria eguneratze eta definitze aldera egin den hausnarketa eta prestaketa prozesuko azken emaitzak. Prozesuaren buru **URREMENDI Landa Garapeneko Elkarte**a izan da, **ITSASMENDIKOI**ren babes eta laguntzarekin.

LGP plangintza estrategikorako tresna bat da, **Landa Garapeneko 10/1998 Lege**an aurreikusten dena. Legeak dioenez, *“...bereziki Euskal Herriko landa ingurunea garatzera orientatzen diren politikek landa ingurunearen garapenerako programen forma hartuko dute”*.

Programa 2007-2013 **denboraldirako** egin da, baina programa bakoitzean **eskualdeko landa eremuak garatzeko ikuspegi bat** aurreikusten da, 15-20 urte bitartekoa. Ikuspegi horretara iristeko lehen urratsa LGP hau betetakoan emango da.

Bat baino gehiago dira eskualdeetako LGPak eguneratu beharraren atzean dauden arrazoiak:

- a) **EAEko hamar landa eskualdeetako landa garapeneko programak 1999an egin ziren**¹. Landa eremuetako populazioen eta errealitate sozioekonomikoen dinamikak **aldaketa nabarmenak izan dituzte azken urteetan**. Lehen zeuden arazo edo gabezia batzuk konpondu dira eta beste batzuentzat, berriz, lana serio eta ondo antolatuta jarraitu beharra dago egiten; testuingurutik sortutako aukera edo mehatxu berriak ere sortu dira. Beharrezkoa zen, beraz, hausnarketa bat egitea, landa eremuen egungo egoeraren eta landa garapeneko prozesuekin jarraitzeko ildoan inguruan.
- b) Landa garapeneko programak **aldi berean eguneratu dira EAEko 18 landa eskualdeetan**². Horri esker, eskualdeetako prozesuen jarraipena era koordinatuagoan egin ahal izan da; lurralde edo EAE mailan eskualde bati baino gehiagori eragiten dieten zeharreko gaiak ere identifikatu ahal izan dira. Halaber, erosoago egingo dira gestioak haien inguruan zeresana duten lurralde edo EAE mailako departamentuetan eta aukera egongo da departamentuen programak eta politikak landa eremuen errealitatera moldatzeko.
- c) Prozesuarekin batera definitu eta sartu da indarrean **Landa Garapen Jasangarriko Programa (LGJP) 2007-2013, finantza marko europarra**. Programa horrek landa gaupeneko dekretu berriak argitaratzea dakar.

Estrategikoki bi plangintzak aldi berean eta era koherentean eramatea da helburua.

¹ Sei Araban, 2 Bizkaian eta 2 Gipuzkoan.

² Araba: Aiara, Gorbeia Inguruak, Lautada, Mendialdea, Errioxa, Haranak. Bizkaia: Arratia-Nerbioi, Busturialdea, Durangaldea, Enkarterrialde, Lea-Artibai, Uribe. Gipuzkoa: Debabarrena, Debagoiena, Donostialdea, Goierri, Tolosaldea, Urola-Kosta.

- d) Eguneratze prozesuaren emaitza eta LGJP-ko ildo estrategikoak **erreferentziatzat** hartuko ditu Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak **landa eremuetarako politikak eta laguntzak zuzentzerakoan**.

LGP hiru bloke nagusik osatzen dute: **Egoeraren Diagnostikoa, Garapen Ikuspegia eta Plangintza**. Horrela jasotzen dira dokumentuan.

- **Egoeraren Diagnostikoa** atala. Lehenik eta behin, eskualdea aurkezten da, hau da, **kokalekua, LGP-ren eremua eta horren deskripzio labur bat** ematen da. Eta ondoren, **AMIA** azterketa (ahultasunak, mehatxuak, indarrak eta aukerak) eta horren laburpen bat egiten da. Laburpenean, **faktore kritikoak** eta **lehiakortasunerako abantailak** identifikatzen dira.
- Gaur egungo egoera deskribatu ondoren, eskualdeko landa eremuen inguruko **Garapen Ikuspegia** aurkezten da.
- **Plangintza** atala. Landa eremuen garapenerako **ardatzak, helburuak eta estrategiak** daude, **plangintza koadroetan** antolatuta, bakoitza bere adierazleekin.

Atal nagusi horiez gain, erabilitako **metodologiaren deskripzio labur bat** eta, aurrekari moduan, **aurreko LGP-ren balorazio bat** egiten dira.

1.2. METODOLOGIA

Metodologia prestatze eta diseinatze aldera, talde hausnarketa bat egin da prozesua prestatzerakoan. Hauek egin zuten lan hori: landa garapeneko elkarteetako, Itsasmendikoiko, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saileko eta LKS-ko ordezkariak. LKS aholkulari gisa aritu zen. Hausnarketan aurreko LGP-etan erabili zen metodologiaren emaitzak berraztertu dira eta, **benetako kudeaketa tresna edo bitarteko izango den dokumentu bat lortzeko helburuarekin**, zenbait elementu aldatzea erabaki dugu:

⇒ **Diagnostiko deskribatzailetik diagnostiko induktibora:**

Aurreko LGP-etan eta zegoen hutsunea ikusita, diagnostikoak egiteko landa eremuen errealitateari buruzko datu estatistikoak bildu, sistematizatu eta aztertu egin behar izan ziren. Hala ere, landa garapeneko elkarteek, Itsasmendikoiko Landa eta Itsasertzeko Sustapena eta Garapena Arloak eta landa eremuetako hainbat eragile giltzarrik duten esperientziak ahalbidetzen digu faktore garrantzitsuenei heltzea eta prozesu induktiboa aplikatzea.

⇒ **Eskualdeko landa eremuen garapen ikuspegi partekatu bat definitzea:**

Horri esker, etorkizuneko irudi bat eman daiteke, 15-20 urte bitarteko helburu zabal batekin, eta eskualde bakoitzeko landa eremuentzako garapen eredura bideratzen gaitu.

⇒ **Estrategiak gutxieneko zehaztasun maila gisa:**


Aurreko landa garapeneko programak definitzerakoan, haiek aurreikusten zuten denboraldian zehar burutu beharreko jarduerak zehaztu ziren; jarduerak, ordea, ez dira

eraginkorrak eta bideragarritasunik ere ez dute askotan. Hori aintzat hartuz, plangintza berri honetan definituko dira 2007-2013 denboraldian egin beharreko bidea markatuko duten **garapen ardatzak, helburuak eta estrategiak**. Ondoren, **Eskualdeko Urteko Kudeaketa Planen** bitartez, dagokion urtean gauzatuko diren Jarduerak identifikatuko dira, definitutako estrategien arabera betiere.

Laneko faseak definitzeko eta diseinatzeko prozesua landa garapeneko programen prestakuntzarekiko paraleloa izan da. Hausnartze-definitze prozesuaren ondorioz, **gida metodologiko berri bat dugu EAEko³ LGP-ak prestatzeko**. Itsasmendikoren web orrian dago gida.

Bai diagnostikoko bai plangintzako edukiak definitzerakoan, landa garapeneko elkarteetako eta Itsasmendikoiko ordezkarienez gain, hainbat toki administrazio, udal, koadrila, administrazio batzar eta mankomunitatetako ordezkariak hartu dute parte, eta baita ere landa eremuen inguruko elkarte sozioekonomiko eta kulturaletako ordezkariak eta foru aldundietako eta Eusko Jaurlaritzako teknikariak eta ordezkariak.

Ondorengo irudian ikus daiteke, labur-labur, eskualde bakoitzean LGP berriak definitzeko aplikatu den **prozesuaren eskema**.





2. AURREKARIAK, AURREKO LGP-RI BURUZKO BALORAZIOA

SARRERA

Busturialdean **Landa Garapeneko lehenengo Programa (LGP)** 2003. urtean egin zen. Horretarako, egoeraren diagnostiko bat egin zen. Datu estatistikoaren bilduma sakonki aztertu zen; oinarrizko barne gaitasunak eta mugak eta abantaila leihakorrak identifikatu ziren, azkenik 2003-2006 aldirako hainbat estrategia eta jardura antolatzen. Hori egiteko eredutzat hartu zituzten **Landa Garapeneko apirilaren 8ko 10/1.998 Legearen** baldintza orokorrak eta sektorialak.

Urremendi Landa Garapeneko Elkarteak zuzendu eta dinamizatu zuen eta MENDIKOI, S.A.ren (gaur egun ITSASMENDIKOI) laguntza izan zuen, landa prestakuntzarako, sustapenerako eta garapenerako zentro integrala.

Nola diagnostikoan hala plangintzan, elkarrizketak egin zitzaizkien sektoreetako adituei eta udal eta eskualde administrazioetako ordezkariari, proposamenak alderatzeko eta adosteko.

Estrategien balorazioa eta jarduerak:

Helburu estrategiko nagusienak aurreko Busturialdeako LGPan zehaztu ziren. Honako hauek dira:

- I.- **Lehen sektorea mantentzea eta eskualdeak eskaintzen dituen ahalmen guztiak garatzea.**
- II.- **Ahalmen turistikoa garatzea.**
- III.- **Dinamika sozio-kulturala hobetzea landa eremuetan.**
- IV.- **Jardura ekonomikoa garatzea landa eremuetan.**
- V.- **Landa populazioari zerbitzuak eta ekipamenduak egokitzea eta erraztea.**
- VI.- **Busturialdeko natura ingurunea mantentzea, landa eta hiriaren arteko oreka lortuz.**

ESTRATEGIAK ETA JARDUERAK BALORATZEA

Helburu horiek lortzeko landa eremuko ekonomia eta enpresa jardura eta bere dibertsifikazioa bultzatzeko estrategiak eta jarduerak ezarri ziren. Lehentasuna eman zitzaion garapen endogenoko ekimenei, landa eremuko azpiegituren garapen eta egokitzapenei eta baita landa eremuetako zerbitzuak Autonomia Erkidegoko gainontzeko zonarako zerbitzuekin berdintzeari ere, batez ere arlo hauetan: hezkuntza, osasuna, etxebizitza, gizarte zerbitzuak, azpiegiturak eta zerbitzu kulturalak eta hizkuntza normalizazioa. Horretarako, landa eremuko ezaugarriari egokitutako irizpideak eta baremoak erabili ziren, **Landa Garapeneko apirilaren 8ko 10/1.998 Legeari jarraiki**. Jarudera garrantzitsuenak hauek izan ziren:

I.- Lehen sektorea mantentzea eta eskualdeak eskaintzen dituen ahalmen guztiak garatzea.

- **Nekazaritza eta abeltzaintzako probetxua** optimizatzea.
 - Kiwiaren laborantzaren birzatiketarako kudeaketak.
 - Larrearen ustiaketarako kudeaketa Iluntzar-en.
- **Sektorearen leihakortasuna** hobetzeko neurrien inguruko prestakuntza eta sentsibilizazioa bultzatzea eta horiek martxan jartzea.
 - Makinak komunean erostea bultzatu da.
 - Prestakuntzako gaiak sortu dira: prestakuntza ikastaroa, basozaintzako simulatzailea.
 - Salmenta zuzena egiten duten baserritarrentzako ikastaroak.
- Dagoen **baso aberastasuna hobetu aprobetxatzea**.
 - Egurrezko parkeak bezalako jarduera pilotoak bultzatu dira.
- **Zonaldeko produktuen sustapena eta merkataritza** bultzatzea
 - Salmenta zuzena sustatu da Bilbo inguruak merkatuak antolatuz eta kontrolatuz "Baserriko produktuak" eta Gernikako Plaza.
 - Berezko produktuak saltzeko saltokia sortu da (Ibarrangelu)

II.- Ahalmen turistikoa garatzea

- Busturialde osoan **sektore turistikoa antolatzea eta garatzea** ikuspuntu bakar eta global batetik.
 - Turismo mahaia osatu da enpresa turistikoen elkarte bat sustatzeko eta garatzeko (Turdaibai)...
 - Sustapen turistikorako planak garatu dira.
- Dauden **baliabide turistikoak** hobetzea eta baloratzea.
 - Urteko dinamizazio turistikorako planak landu dira 2004, 2005, 2006 eta 2007an zehar. Plan horiek oinarri dute LGP/ garapenerako Eusko Jaurlaritzaren plan estrategikoa.
- **Azpiegitura turistikoak** hobetzea.
 - BTT zentroak eta ibilbideak
 - PR, GR ibilbideak

III.- Dinamika sozio-kulturala hobetzea landa eremuetan

- **Dauden ekipamendu eta azpiegiturak** optimizatzea eta aprobetxatzea
 - Lokalak berreskuratzea soziokulturalki eta gastronomikoki erabiltzeko.
 - Kirol ekipamenduak eta erabilera anitzekoak/balio anitzekoak hainbat udalerritan.
 - Ahurtzaindegiak.
 - Ludoteka.
- **Elkarte dinamizatzaile eta kulturalak** sustatzea, baita jardueren egituratze eta garapena ere
 - Gazte Plana programa martxan jartze

- Berpiztu
- Busturialdeko Organoak musika zikloa

- Dagoen **ondare historiko-kulturala** berreskuratzea eta baloratzea.
 - Tokiko argitalpenak sustatea eskualdean, bai modu digitalean, bai idatziz, kultura eta aisialdi informazioa emateko.
 - Balio erlijiosoak eta kulturalak duten eraikin txikiak berreskuratzea eta birbaloratzea
 - Leku historiko-kulturalak berreskurtzeko proiektuak (Castro de Arrola, Ostrera de Kanala)

IV.- **Jarduera ekonomikoa garatzea landa eremuetan**

- **Jarduera ekonomiko**en garapena bultzatzea landa eremuetan
 - Tokiko erakundeen arteko koordinazioa, eskualdeko industrialdea batera kudeatzeko
 - Landa ostatuak eta/edo ostalaritzarekin harremana duten instalazioei laguntzea
 - Establezimendu txikiko instalazioei laguntzea (ileapaindegia eta estetika).
 - Nekazaritzako elikagaien industria instalazioei laguntzea.

V.- **Landa populazioari zerbitzuak eta ekipamenduak egokitzea eta erraztea.**

- **Zerbitzu sozialak eta osasun zerbitzuak** landa eremuko zehaztapenetara egokitzea eta horien erabilera bultzatzea
 - Mediku kontsulta egokitzea: Gauegiz-Arteaga, Ereño, Arratzu, Errigoiti,...
 - Ereño-Nabarniz zonako zaharrentzako eta ezgaitasunak dituzten pertsonentzako gizarte zerbitzuen egoerari buruzko azterketa.
 - Zerbitzu sozialetarako lokalak egokitzea.
- **Hezkuntza zerbitzuen eskaintza** sustatzea landa eremuan
 - Lokalak egokitzea eskolak emateko (Muxika)
- **Etxebizitza sarrera** hobetzea landa eremuan
 - Urbanizazioei laguntza ematea etxebizitzarako sarrera errazteko (Ibarrangelu eta Arratzu)
- **Oinarrizko azpiegiturak** hobetzea landa eremuan
 - Landa posta
 - Auzoetan seinaleak jartzea
 - Urbanizazioak eta aparkalekuak (Ereño-Nabarniz)
 - Antena igorleak (Muxika, Bermeo, Ereño, Arratzu, Busturia, Morga,...)
 - Telekomunikazioetako harguneak (Ea, Forua,...)

VI.- Busturialdeko landa eremua babestea eta landa eta hiriaren arteko oreka lortzea

- **Urdaibai Erreserbako Patronatoaren eta eskualdeko agente ezberdinen arteko koordinazioa hobetzea**
 - Parte hartzea / LGP-PADAS koordinazioa
 - Eskualdeko gaietarako Batzordea osatzea
- **Besteak**
 - Aisialdi eta atsedenleku inguruak (Sukarrieta-Kanala, Arratzu)
 - Elaia Bird Migration Centre
 - Ibilbideak berreskuratzea

ONDORIOAK


LGPan zehaztutako helburuak lortzeko egindako lanak ondorengo hausnarketak eta ondorioak atera ditu:

- Egindako jarduera guztiez gain etorkizunean erakundeen arteko koordinazio hobean sakondu beharko litzateke.
- Eskualdeko ikuspegia eta lan bateratua mantendu eta kontsolidatu beharko genuke.
- Udalerriko arduradun bakoitzaren inplikazioa garrantzitsua izan da eta baita horiek EHAKo lurralde eremuko erakunde ofizialekin izan duten interakzioa ere.

3. EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

3.1. ESKUALDEAREN AURKEZPENA

3.1.1. Kokapena





3.1.2. LGP-ren eremua

LGP honen jarduera eremuak Busturialdeko eskualdeko landa inguruak barne hartzen ditu. Ondorengo mapan ordezkatuta daude landa inguru bezala mugatu diren zonaldeak³

³ LGP-ko eremua mugatzeko oinarri moduan hartu da 2007-2013 LGI Prako definitutako landa eremuen mapa, erakundearen izanik oinarritzko lurralde unitatea.



BUSTURIALDEA

3.1.3. Eskualdearen deskripzioa

Busturialdea eskualdea Bizkaiko lurralde historikoko ekialdeko aldean dago eta guztira **20 udalerriz** osatua dago: **Ajangiz, Arratzu, Bermeo, Busturia, Ea, Elantxobe, Ereño, Errigoiti, Forua, Gaategiz Arteaga, Gernika-Lumo, Ibarrangelu, Kortezubi, Mendata, Morga Mundaka, Murueta, Muxika, Nabarniz eta Sukarrieta.**

Landa Garapeneko Programak Busturialdeko eskualdeko landa eremu guztietan **jardungo** du.

Ikuspuntu fisikotik eremu horrek erliebe malkartsua du, Gernikako itsasadarretik gertu dagoen inguruan izan ezik. Bi mendi sistema ezberdindu daitezke: bata itsasertzeko zonan eta bestea barnekaldeko zonan (Bizkargi eta Oiz mendiguneak). Bi zona horien artean korridore zentral bat dago eta bertatik Oka ibaia pasatzen da Kantauri Itsasoan amaitu arte, Gernikako itsasadar moduan.

Eremu handia hartzen du (Bizkaiko hedaduraren % 13a) eta natura kontserbazio gradu bikaina dauka. Ezaugarri horiek EAEko gune natural bihurtzen dute, non paisaian eta ekologikoki aniztasun handia dagoen. Hori dela eta, 1084ean eskualde honek betetako azalera gehiena **gizadiaren ondare eta biosfera erreserba** aitortu zen.

Azalera eta demografia

Eskualdeko populazio osoa 44.971 biztanlekoa da (2004, Eustat). Biztanle horietatik gutxi gorabehera %25a batez ere landa auzoetan bizi da. Azpimarragarria da eskualdeko 20 udalerrietatik 15 udalerrik 1.000 biztanle baino gutxiago izatea.

Gutxi gorabehera 284 km² –ko azalera du eta km²-ko **populazioren batez besteko azalera** 155 biztanlekoa da.

Eskualdean bi **gune garrantzitsu** daude: Gernika-Lumo eta Bermeo. Gernika-Lumok eragin handiagoa du, dagoen komunikazio sare nahaspilatua dela eta. Bestetik, Bermeok eragina du gertuen dituen guneetan. Bi inguru horiek eskualdeko populazio osoaren % 73a hartzen dute.

Azpimarragarria da Busturialdeko eskualdearekiko nortasuna eta bertako kide izateko sentimendua.

Busturialdeko populazioa azken urteetan mantendu da (1996-2004, Eustat). Era berean, zentzu orokorrean azaldu behar da, Busturialdeko **populazioak zahartzeko joera** argia erakusten duela. 65 urtetik gorakoen portzentajea 2001ean Bizkaiko lurraldekoa baino askoz handiagoa da (% 24,6, % 18,5aren aurrean). Udalerrri txikienak eta landa izaera handiagoa dutenak dira zahartze indize handienak aurkezten dituztenak.

Eskolatzeko maila eta euskara

2001 urteko errolda datuen arabera ez dago aldaketa garrantzitsurik Busturialdean, Bizkaiko lurralde historikoan eta EAEn eskolatzeko mailan.

2001ean populazioaren % 45,28ak lehen mailako ikasketak zituen, % 17,11k bigarren mailako ikasketak, % 13,23ak lanbide heziketako ikasketak eta % 7,64ak erdi-goiko mailako ikasketak.

Euskaldunen portzentajea oso altua da: % 75 (2001, Eustat).

Enplegua

Jarduera tasa 2001ean % 43,7a zen, Bizkaiko lurralde historikokoa baino baxuagoa (%45,4) eta baita EAEn baino baxuagoa (%46,8). Bestetik, langabezia-tasa %4,5ekoa da, Bizkaian orokorrean (%6) eta baita EAEn (%6) baino baxuagoa. (2001, Eustat)

Eskualdean populazioaren gehiengoak zerbitzu sektorean dihardu; guztira 9.599 pertsonen (%55,5). Jarraian, industria sektorean, guztira 4.604 pertsonen (%26,6). Ondoren, lehen sektorean 1.622 pertsonen (%9,4) eta azkenik, eraikuntza sektorea dago, bertan 1.468 pertsonen (%8,5). (2001, Eustat).

Busturialdean 2001ean lehen sektorean ari zen populazioaren portzentajea Bizkaikoa baino ia sei aldiz handiagoa zen. Hala ere, esan beharra dago portzentaje hori ematearen arrazoia dela Elantxoben eta Bermeon batez ere arrantzak duen garrantzia.

Lehen sektorea

Lehen sektorearekin zerikusia duten jarduerak asko ematen dira eskualdean. Arrantza aintzat hartu gabe lehen sektorean nagusi da baratzezaintza. Baratzezaintzak aurkezten zituen: klima faboragarritik ateratako aukera asko, eskualde bereko merkatu interesgarri bat eta eskualdeko bereko produktu batzuentzako (babarruna, piperra, txakolina, etab.) label ezberdinak.

Ustiapenek batez ere izaera familiarra eta mistoa dute. Historikoki industriako lana eta baserriko lana elkarren osagarri bihurtu dira.

Eskualdeko ustiapen kopurua azken urteetan gutxitu da eta ustiapenen batez besteko tamaina 6,8 ha/ustiapenekoa da, gainera zatikatuta daude. Bestetik, baserria bizitoki soilik erabiltzeko ohitura dago, hori dela eta, baserria salmentarako ustiapen eta produkzio unitate moduan desagertzea azkartzen ari da.

Eskualdean pertsona gutxi dihardute sektorean profesional moduan eta bertan dabilzanak batez ere biltzen dira barazki-frutazaintzan, txakolinean eta abeltzaintzan (behi-aziendaren haragia eta esnea). Gainera, ustiapenetan belaunaldi arteko txandakatze falta ikus daiteke. 1999an lanean zebilen lurren jabeen % 63a 55 urtetik gorakoa zen.



Ustiapen gehienek jabetza banatzen dute lursail ezberdinen artean eta lursailak batzeko saiakerak egin izanagatik, orain arte ez da emaitzik jaso.

Lurra eskuratzeko zailtasunei dagokionez, sentsazio orokorra da horren arrazoi nagusia lurak duen prezio altua dela, jasaten duen hirigintza presioa dela eta.

Eraldaketa dagokionez lehen sektoreko produktuen eraldaketa jardura eskasa antzematen da, txakolina eta egurra salbu (nahiz eta bigarren eraldaketan gutxi aritu). Eraldaketa arrain kontserbekin zerikusia duten jardueretan oinarritzen da (horiek batez ere Bermeon biltzen dira), jarraian, ardoak sortzearekin eta kiantzarekin zerikusia dutenak eta egurraren zerraketa eta arrabotaketarekin.

Busturialdeko lehen sektoreko produktuak merkaturatzeari dagokionez, Gernika-Lumoko merkata da nagusienetako bat. Produkzioaren zati handi bat jatorrizko deiturarekin merkaturatzen da, kalitatezko euskal labelarekin edo produktu ekologikoko etiketarekin. (Gernika-Lumoko babarruna, Gernika-lumoko piperra, Idiazabal gazta, Bizkaiko txakolina eta eztia).

⇒ Nekazaritza

Baratze ohitura garrantzitsua dago, nahiz eta barazkigintzara bakarrik zuzendutako ustiapenen kopuruan beheraka egin. Beherakada hori ustiapen txikienetan bildu da, aldi berean dimentsio ekonomiko handiagoko ustiapenak areagotu baitira; hau da, ekoizpen profesionalera zuzendutakoak.

Bestetik frutagintzari dagokionez dimentsio zehatz bateko ustiapen gutxiago daude. Hala ere, eskualdea txakolinaren ekoizpen (mahatsa eta upeltegiak) garrantzitsuagatik karakterizatzen da. Sektore hori hazten ari da. Era berean azpimarratu behar da Busturialdea Bizkaian kiwi ekoizpen handiena duen eskualdetako bat dela, bere ekoizpenerako baldintza onak baitaude.

⇒ Abeltzaintza Ganadería

Abeltzaintzako ustiapenak %16,8 gutxiagotu dira 1989-1999 artean. Esnetarako abeltzaintza sektoreari dagokionez, azken urteetan hainbat ustiapenek jardura bertan behera utzi dute (89-99 aldian -% 84,1) eta haragitarako behi-azineda ia lau aldiz biderkatu da 89-99 aldian. Horren arrazoia da funtsean esnetarako behi-azientatik haragitarako behi-azientara aldatzea, batez ere, profesionalak ez diren eta dimentsio ekonomiko txikiagoa duten ustiapenetan. Era berean, ardi-haragi, ardi-ahuntzen eta txerri-azienda sektoreko ustiapenak modu arinean atzera egiten ari dira, nahiz eta nolabaiteko dimentsio ekonomikoa duten ardi-azienda ustiapenak egon.

⇒ Basogintza

Basogintza sektoreak pisu handia du Busturialdean. Bertan kontsolidatutako basogintza kultura dago. Gehienbat ustiapen txiki pribatuak daude, batez ere pinua eta eukaliptoak. Duela gutxi basogintza sektore pribatuaren eta patronatuaren arteko arazoa gainditu da, Erabilera eta Kudeaketarako Plan Zuzentzailea aldatu da eta neurri handiago batean baloratu da ustiapenaren erabilera egokia eta ez horrenbeste



landatutako espezie mota. Basogintzako azalera ez komertzialaren portzentajea (hostotsua, eukaliptoia izan ezik) laukoiztu egin da 1989-1999 aldian.

Bigarren sektorea: industria

Busturialdeak historikoki industria izan du, batez ere Gernikoa-Lumo inguruan. Bertan eskualdeko jardueraren % 53, 6a biltzen da. Metalurgia sektorea eta automozio aldagaiak dituen industria nabarmentzen dira, baina azpimarragarriak dira baita ere arrantza sektoreari (Bermeo), basogintzari (Muxika) eta ontzien eraikuntzari (Muruetan) lotutako nekazaritzako elikagaien industriak.

Azpimarragarria da eskualdeko enplegu industrialaren ia % 30a kanpora doala lan egitera.

Hirugarren sektorea: turismoa eta zerbitzuak

Busturialdean zerbitzuen sektoreak diharduen populazioa EA Eren batez bestekotik 7 puntu beherago dago (2001, Eustat) eta merkataritzako jardura indizea ere lurraldeko batez bestekoaren azpitik dago (%62,0).

Busturialdea barnean jardura udalerrin nagusienetan biltzen da, ondorioz, merkataritza isuria nagusitzen da Gernika-lumon eta Bermeon.

Merkataritza azalera ertainak daude Gernika-Lumon eta Foruan. Landa udalerriei dagokienez, guztiek ez dituzte gertuko dendak edo banku zerbitzuak bezalako establezimendu zehatzak.

Busturialdeko turismoa eta aisialdiko potentziala oso garrantzitsua da, hainbat eta hainbat erakargarritasun ditu: kosta eta hondartza zona, natura eta paisai baliabidea ospetsuak (Urdaibai Biosfera Erreserbaren gehiengoa Busturialdean dago) eta ondare kultural, erlijioso eta historiko arkitektoniko garrantzitsua.

Gaur egun turismoa hedatzeko eta sustatzeko lanak batez ere Urremendi Landa Garapeneko Elkartetik egiten ari dira eta baita udalerrin ezberdinetatik. Gainera, Urdaibai-Turdaibai Turismo Iraunkorreko Elkartea sortu da. Elkarte hori turismo sektoreko hainbat enpresek osatzen dute eta euren helburua da modu koordinatuan lan egitea izaera iraunkorra eta kulturala duen turismoa dinamizatzeko Urdaibaien eta bere irudia bultzatzeko kalitatezko turismorako helmuga moduan.

Eskualdeak zerbitzu turistikoekin zerikusia duten enpresak ditu, harrera egitura zabala dauka eta turismo bulegoak ditu Gernika-Lumoko, Bermeoko, Mundakako eta Mendatako udalerrietan. Azpimarragarriak dira Urdaibairen eskaintza turistiko areagotzeko garatzen hasi diren ekimenak, BTT lehenengo zentro moduan. Zentro hori duela gutxi ireki zen Mendatan.

Aisialdi turismoa urte guztian zehar egiten da; udako turismoa nagusitzen da, bigarren etxebizitzetan egonaldiekin edo egun pasa hondartzara joatearekin.

Hezkuntza eta kultura

Busturialdeak hezkuntza eskaeraren beharrak betetzen ditu, hala ere, itxuraz bete arren, udalerrri txikienetan ikastetxean falta dira. Hala, 20 udalerrrietatik 13 udalerririk ez dute ikastetxerik. Udalerrri horietatik bederatzia, landa udalerrriak dira.

Azpiegitura kulturala hiriguneetan dago, irisgarritasun txikiagoa dago landa eremuetatik. Landa eremuko kirol instalazioei dagokienez, eskuragarri dauden frontoietan eta demalekuetan biltzen dira, nahiz eta hiriguneetan ere instalazioen eskaintza zabala egon.

0-3 urte bitarteko hezkuntza eremuan Gernika eta Bermeoko zentroz gain, eskualdeko eskuinaldeko aldean bi zentro daude: bata Ean eta bestea Gauteiz-Artegagan; era berean, ezkerreko aldean zentroak daude Busturian eta Mundakan, eta baita Muxika barnealdean ere.

Gazteriarentzako aisialdiko bestelako jardueretan eskasia dago, batez ere udalerrri txikietan. Zentzu horretan duela gutxi onartu da "Busturialdeko Herri Txikien Gazte Plana" abian jartzea. Plan horren helburua da eskasi horri aurre egitea.

Zerbitzu sozio-sanitarioak

Zerbitzu sozio-sanitarioak Gernika-Lumon eta Bermeon biltzen dira, nahiz eta zerbitzuak eman eskualdeko populazio osoari.

Udalerrri guztiek lehen mailako osasun-laguntzako zerbitzua dute. Zerbitzu hori hainbat udalerrrietan landa auzoetara zabaltzen da, nahiz eta hainbat kasutan bertara iristeko hainbat arazo egon.

Zerbitzu sozialei dagokienez, Busturialdeko Zerbitzu Sozialen mankomunitateak eskualdeko 20 udalerrrietatik 15 udalerrri biltzen ditu. Gainontzeko 5 herrialdek zerbitzu mota horiek bakarka kudeatzen dituzte euren oinarriko zerbitzu sozialen bitartez. Zentzu horretan gabezia garrantzitsua da landa eremuko eskaera zehatzei aurre egiteko egokitzapena.

Etxebizitza

Udan etxebizitza betetzeko portzentajea altua da, batez ere kostako udalerrrietan, esate baterako udalerrri hauetan: Sukarrieta (biztanle baino etxebizitza gehiago daude), Mudana, Ea, Ibarrangelu, Busturia eta Elantxobe. Azken urteetan etxebizitzaren prezioan gorakara garrantzitsua nabaritu da.

Garraioa eta komunikazioa

Busturialdea Autonomia Erkidegoko bide garrantzitsuenetatik urrun dago, A-8 autopistatik sartzeko arazoak ditu, baita N-634tik ere.

Garraio publikoko zerbitzuari dagokionez, nahiz eta zerbitzua eskualdeko udalerrri guztietara iritsi, auzoak eta baserriak desagertzeak eskari sakabanatura eta ibilbidearen iraupen tartetara egokitzen den zerbitzu baten eskaintza oztopatzen du.



Bestetik, ezker aldeko trenbideaz gain eskualdean bi bide nagusi daude. Bide horiek errekaren bi aldeetatik igarotzen dira.

Oinarrizko azpiegiturak

Kostako zonako opor fenomenoak dela eta arazoak daude, udaldian populazioa dezente hazten baita saneamendu sarean eta uraren banaketan.

Era beran, gaur egun elektrizitate hornikuntzan arazoak daude, hainbat egun iraun dezaketen tentsio erorketak eta itzalaldiak gertatzen baitira.

Zaborrak jasotzeko zerbitzua udalekoa da eta barne hartzen ditu gunek nagusiak, baita auzoak ere.

Landa udalerrietan ez dituzte gasifikazio azpiegiturak, telefono mugikorrei estaldura emateko arazoak daude eta ez dago zuntz optikorik.

Lurraldearen eta ingurumenaren antolamendua

Lurraldearen Zatik Planak proposatutako oinarrizko printzipioetako bat izango litzateke Gernika-Markinako eremu funtzionala Euskal Herriko ingurumenerako eta landarako oinarrizko pieza izatea. Hala ere, udaleko langile teknikoek eta sektoreko arduradunen artean landa munduarekin zerikusia duten gaien inguruan sentikortasun pertzepziorik ez dagoela dirudi. Era berean, gaur egun Urdaibai patronatua eta nekazari eta abentzainak ez datoz bat babes berezia duten ingurumenak erabiltzearen inguruan.

Aurrez esan bezala, Busturialdeak natura aldetik garrantzitsuak diren eremuak ditu; zalantzarik gabe Urdaibai Biosfera Erreserba eta Gaztelugatxe San Juan biotopoa dira EAEn garrantzia gehien duten bi baliabide naturalak.

Bestetik, kontserbazio gradu paregabea duen natura gunek izan arren, arazoak dituzten hainbat ibai-ibilgu daude, hiritik datozen isuriengatik eta dauden maldentzako egokiak ez diren basogintza teknikengatik.



3.2. AMIA AZTERKETA

Eskualdeko landa eremuen gaur egungo egoera ezagutzeko, AMIA azterketa bat egin da. Azterketan ikusi dira eskualdearen garapen prozesuan eragiten duten **barne faktoreak** (ahultasunak eta indarrak) **eta kanpo faktoreak** (mehatxuak eta aukerak).

AHULTASUNAK	MEHATXUAK
Nekazaritzako sektoreak beheraka egin du: ustiapen kopurua gutxitu da. Ustiapen eta zatiketa tamaina txikia da. Lehen sektoreko populazioa zahartu da. Belaunaldi ordezkapena falta da.	Baserria desagertuko da ustiapen eta produkzio unitate moduan, belaunaldi ordezkapena falta da, beste sektore batzuetan espektatiba ekonomikoa handiagoak daude, etab.
Arrantza sektoreak beheraka egin du: belaunaldi ordezkapena falta da. Ontzi kopurua gutxitu da. Etab.	Kontsumitzaileek ez dituzte baloratzen/ezberdintzen kalitatezko produktuak. kalitatezko produktuetan iruzurrek kontsumitzaileen mesfidantza dakarte.
Nekazaritza gaietan sentikortasuna eta dedikazioa falta dira udaletan.	Elkarreragintzarako desabantailak (diru-laguntza gutxiago).
Lurra eskuratzeko zailtasunak daude. Espekulazioa, errentarako mesfidantza, etab.	Merkatuaren globalizazioak nekazaritza eta basogintza produktuen merkataritza oztopatzen du, gainontzeko produktuen prezioei, bolumenari eta ezberdintze faltari ezin dietelako aurre egin.
Laneskua falta da lehen sektorean.	Alboko erkidegoetan (Kantabria) ustiapenak jartzeko aukera gehiago daude.
Urdaibai Biosfera Erreserbak nekazaritza eta basogintza proiektuen garapena mugatzen du.	Lurra kudeatzeko tresnak falta dira. Lursailak batzeko zailtasunak daude.
Nekazaritza produktuak eraldatzeko industria txikietan jarduera eskasa da (txakolina salbu).	Laborantza lurretan hirigintza presioa dago.
Bigarren eraldaketan eskasia dago basogintza sektorean.	Basogintza sektorean izurriak eta gaixotasunak garatzen dira.
Baso-pisten mantenu txikia dago eta/edo falta da.	Basogintza sektorea desegonkortuko da, neguan zehar baso jarduera murrizten duten udal ordenatzak direla eta.
Mekanizazio zailtasunak daude orografia eta lursailen tamaina txikia direla eta.	Udako turismoa nagusitzen da, bigarren egoitzetako egonaldiak edo egun pasa bakar batekin (txangozaletasuna).
AHULTASUNAK	MEHATXUAK
Gizarteak sentikortasun eskasa du landa eremuaren funtzio anitzekiko eta	Lotarako udalerrri bihurtuko dira.



basoaren funtzio ekologikoarekiko.	
Telekomunikazio azpiegiturak gabeziak dituzte. "Itzalezko" zonaldeak banda zabala eskuratzeko (Adibideak: Muxika, Ibarangelua, Nabarniz, Elantxobe eta Kortezubi)	Bizitza sozialik gabeko udalerrri bihurtuko dira.
Bide azpiegitura gabezia dago. Ondorioz, eskualdera komunikazioa oztopatzen du eta baita eskualdean bertako komunikazioa (batez ere eskuineko aldean) ere.	Pertenentzia-sentimendua galduko da.
Burdinazko azpiegitura mugatua, ez daude egokituta merkantzien garraiorako.	
Hainbat arazo daude hornikuntza elektrikorako, saneamendurako (hainbat zonaldeetan ez da ur garbia iristen) eta gasifikaziorako (Busturia).	
Azpiegiturak falta dira biltegitratzeko (akuiferoa ziurrenik kutsatuta dago) eta ura banatzeko (basogintzako kudeaketa txarrekin zerikusia izan dezake).	
Zerbitzuak/jarduerak emateko zailtasunak daude udaldian, hainbat kostako udalerrri txikitik populazioak gainezka egiten du. Udaldian pilaketa/asetasuna ematearen eta hainbat kostako udalerritako zama gaitasuna gainditzearen arrazoia da eskualdean garatzen den turismo iraunkorra falta izatea.	
Turismo enpresa batzuren eskaintza murrizta da (ordutegiak, parte hartzaile gutxi, etab.) baita plazena ere (ahalmena)	
Sektorea profesionalizatzea falta da . Zerbitzu sektorean langile gaituak falta dira (hostalaritza, gidak, etab)	
Turismo seinale gutxiegi daude	
Ezinezkoa da Haurreskolak irekitzea, Eusko Jaurlaritzak ezartzen dituen tarifak pribatuak ezartzen dituenak baino garestiagoak direlako.	
AHULTASUNAK	MEHATXUAK
Enpresa dinamika/ekimen endogeno eskasia konponduko duen lanbide heziketa eskaintzeko azpiegiturak falta dira.	
Udalerrri txikienetan ez dago eskolarik (udalerrri hauek salbuespena dira: Arratzu, Gautegiz-Arteaga, Busturia, Mundaka y Muxika). Ondorioz, bizitza sozialik ez duen udalerrri bihurtzeko eta bertakotasuna galtzeko arriskua dago.	
Bilera zentroetan jarduera gutxi egiten dira udalerrietan eta tamaina txikiagoko auzoetan. Jardueretarako langileak eta azpiegitura egokiak falta dira.	
Zerbitzu sozialek egituratze bakarra dute, ez dituzte aintzat hartzen landa	



eremuaren eta hiriaren arteko eskaera eta behar ezberdinak.	
Etorkinen populazioa eta biztanle berriak integratzea falta da.	
Zaharrentzako eguneko egoitzetan etorkizunean plazak falta izatea posible da. Biztanleriaren zahartzea eta fenomeno honi erlazionatuta dauden behar sozialak, dagoen eskaintza baino askoz handiagoak dira eskualdeko landa inguruneetan.	
Koordinazio zailtasunak daude Urdaibai Erreserbaren kudeaketan eskualdeko garapen sozioekonomikoan parte hartzen duten agenteen eta patronatoaren artean. (Adibidez, zonabanatzeak luraren erabileran eta horren inguruko interpretazio ezberdinek, enpresa proiektuen garapena oztopatzen dute, etab.).	
Landa eremuetan industrialde gabezia dago, jarduera ekonomikoa aurrera eramateko. Ez dago enpresak har ditzakeen lur urbanizaturik.	



INDARRAK	AUKERAK
Lehen sektoreak pisu garrantzitsua mantentzea lortu du eskualdeko populazioan, neurri handi batean espezializazioari eta profesionalizazioari esker.	Lurzoruaren legea nekazaritza lurra babesteko tresna da.
Kalitate handiko nekazaritza produktuak ekoizten dira. Barazki laborantza ohitura garrantzitsua dago.	Enpresa inguruak baserrian eta kanpoan lan egiteko aukera ematen du, errenta hobetzeko eta dibertsifikatzeko (ekonomia mistoa).
Basogintza ikuspegitik balio handiko lurra dago baina ez dago eskuragarri.	Bilbo gertu dago dimentsio merkatu moduan.
Lehen ekoizpenaren eta tokiko merkataritzaren artean erlazioa dago, ospe ezaguna duen merkatua da: Gernika-Lumo eta produktu zehatzen markako irudia du: "Gernika", ospe handia duena.	Emakumeekin esperientzia onak dituzte nekazaritza lanetan, hala, urte-sasoiko lan beharrak betetzen dituzte.
Kontserba sektore garrantzitsua dago eskualdean, eraldaketan lanean dakite.	Merkatu-nitxoak daude eta horiek kalitatezko eta/edo produktu ezberdinak eskatzen dituzte.
Txakoli sektoreak nolabaiteko egituraketa eta pisua du, hazten ari den sektorea da. Probintzi mailan upategi esperientzia dute.	IKT ak aplikatzeko aukera dago; horrela sortuko dira merkararitza bide berriak, lan mota berriak "telelana", etab.
Paisaia, aniztasuna eta turismoa mantentzen dira nekazaritza eta basogintza jardueraren bitartez.	Basogintza iraunkorreko kudeaketa ziurtatu daiteke produktua desberdintzeko sistema moduan.
Egurra baliabide natural berriztagarri moduan ugaria eta emankorra da eskualdean, lehenengo eta bigarren eraldaketa enpresak daude eta basogintza kultura handia du.	Egurraren lehen eta bigarren eraldaketa enpresetarako leku zehatzak sortzeko proiektua dago. (Múgiga eskualdeko industrialdea).
Energia berriztagarriak erabiltzen dira baliabideak optimizatzen.	Laster Sollube eta Autzagane tunelak eraikiko dira eta horiek Bilborekin dauden hainbat komunikabide hobetuko dituzte.
Erakundeek eskualde mailan batera lan egiteko ohitura dute. Eskualdeko gai estrategikoen Batzordea martxan da.	IKTak erabili daitezke bizi-kalitatea hobetzeko eta lan aukera gehiago sortzeko sistema moduan (telelana).
Urremendi LGEa dago. Berak biltzen ditu eskualdeko agente guztiak eta gaiak eskualdeko ikuspegiarekin hausnartzeko aukera ematen du.	Gernikako eta Bermeoko udalak prest daude kultura, kirol eta beste motatako proiektuak bultzatzeko eskualdean..
Landa eremuko eta itsasertzeko kultura, baloreak eta ondarea kontserbatzen dira.	Agente sozialek eta publikoek landa kultura eta itsasertzeko kultura berreskuratzeko eta mantentzeko interesa dute.
Landa eremuetan egoitza berriak eraikitzen diren proiektuak dago.	Gernikan ospitale berria egingo da. <i>Aukera anitzeko zentro baten proiektua Ereñon (Egoitza, eguneko egoitza).</i>
Populazioak heziketa maila altua du.	Inmigrazioa lan eskurako iturri izan daiteke zerbitzu sektorean, lehen sektorean eta eraikuntzan.



INDARRAK	AUKERAK
Sektorearen eta helmugako kudeaketaren antolaketa areagotzen ari dira (eskualde osoko turismoa kudeatzeko erakunde bat dago, Urremendi LGE, turismo eta ostatu enpresen erakundea sortu da, zaharberrikuntza zerbitzua).	Mundaka bezala mundu mailan ezagunak diren produktuak erabiltzen dituzte, eskualdea turismo helmuga moduan saltzeko.
Merkataritza sustapenerako bitartekoak daude (aldizkariak, web orria, etab.).	Bilbotik gertu dago.
Turismo baliabide berriak eskaintzeko ahalmen handia dago. Turismo baliabide ugari daude: Gernikako ikurrak (Gernikako Arbola, Batzar Etxea, bonbardaketa, etab.). Ohiko udalerrri arrantzaleak (Bermeo. Elantxobe, etab.). Festa eta ohitura garrantzitsuak, surf-eko mundu mailako txapelketa (Mundaka), ondare garrantzitsua kulturaren, erlijioan, historia-arkitekturan, biosfera interpretatzeko zentroa (Madariaga dorrea), txakolin upeltegiak, etab.	Bizkaia Euskal Kostaldea eta Bizkaia Natural marketan sartu daitezke, baita euren inguruan egiten diren sustapen kanpainetan ere.
“ Marka ” ospetsuak daude (urdaibai, Gernika. Lumo, Bermeo).	Bisitarien/turisten isuria areagotu da (tokikoa eta nazioartekoa).
Kostako eta barneko turismoa dago.	Hauen eskaintza areagotu da: Turismo aktiboa, kirol turismoa, landa turismoa eta turismo gastronomikoa.
Eskualdean turismo eta aisialdi zerbitzuarekin zerikusia duten enpresak ezarri dira.	Biomasaren inguruan merkatu bat garatu daiteke, eskaria areagotu dela eta.
Turismo establezimentuen jabeek eskualdea ezagutzen dute eta bertan errotuta daude.	
Urdaibai Biosfera Erreserba.	

3.3. LEHIAKORTASUNERAKO ABANTAILAK ETA FAKTORE KRITIKOAK

AMIA azterketan eskualdeko landa eremuen egoerari buruzko elementu giltzarriak identifikatzen dira. Elementu horiek bi multzotan bana ditzakegu: **lehiakortasunerako abantailak** eta **faktore kritikoak**.

Lehiakortasunerako abantailak dira landa eremuen garapenarentzako ezaugarri mesedegarrienak; eskualdeak dituen indarrak dira, eta indar horiei lotuta inguruko aukerak daude.

Faktore kritikoak, berriz, eskualdeak dituen ahultasunak dira. Ahultasun horiek eragina dute edo areagotu egiten dira inguruko mehatxuengatik. Faktore kritikoek, azken baten, landa eremuen garapena zaildu eta/edo oztopatu egiten dute.

Horiek guztiak identifikatze aldera, **kanpo faktoreek barne faktoreetan duten inpaktua edo eragina** aztertu da, hau da, aukerak indarretan eta mehatxuek ahultasunetan hurrenez hurren.

3.3.1. Lehiakortasunerako abantailak

LA1. Busturialdeak **turismo ahalmen garrantzitsua** du eta Urdaibai da EAEko turismorako erakargarri garrantzitsuenetako bat.

Toki onean dago eta **Bilbotik gertu**. **Hainbat erakargarri ditu**: kosta eta hondartza zonak, kultur ondare garrantzitsua, erlijiosoa eta historiko-arkitektonikoa, ospea duten **hainbat produktu turistiko** (Gernikako Arbola, Gernika-Lumoko Batzar-Etxea edo Santimamiñeko kobazuloak) eta mundu mailan ezagunak (Mundakako mundu mailako surf txapelketa), eta ondo zehaztutako **marken** irudia (Urdaibai, Gernika-Lumo) etab. Baina ezberdintasun nagusia da **kontserba natural bikaina duen ingurua izatea**. Paisaian eta ekologikoki aniztasuna duen gune natural bat da, hori dela eta, **Gizadiaren ondare eta biosferaren erreserba** izendatu zuten. Eskualdea hainbat eta hainbat natura eta paisai baliabidek hornitzen dute (**Gaztelugatxe San Juan biotopoa, hondartzak eta arrantza portuak...**) eta sozialki balorazio handia du.

Gainera ahalmen handia du turismo baliabide eta produktu berriak eskaintzeko, Urremendi LGE eta enpresen elkarte berriaren artean egindako turismo sektorearen koordinazio eta antolaketa onari esker. Gainera harrera egitura zabalarekin batera posible da sektorea garatzea eta turismo zerbitzuak eta aisialdikoak eta baita zaharkerrikuntza eta egoitza zerbitzuak eskainiko dituzten enpresa berriak jartzea eta garatzea.

Garapena modu ordenatuan eta zehaztuan egiten bada (egonaldiak erlazionatuz merkatuarekin eta zonaldeko produktuen salmentarekin) Busturialdeko landa inguruaren mantenuan lagundu dezake, nekazarien errenta areagotuko eta dibertsifikatuko baitu **landa turismoari** esker.

LA2. Lehen mailako jarduera presente dago, bizia, ezaguna, kalitatezko irudiarekin eta ahalmenarekin.

Lehen sektorearekin zerikusia duten jarduera asko ematen dira eskualdean, **profesionalizazioa** eta **jarduera mistoa** direla eta (batez ere haragitarako behi-aziendagatik). Izan ere, baserriko eta enpresako lana bateratzeko aukerak, errenta hobetu eta dibertsifikatzeaz gain, funtsezkoak izan dira **paisaiaren eta ingurunearen mantenuan**.

Busturialdea **ortuarien eta fruten tradizio handia** duen eskualdea da. Tokiko merkataritza ospetsua du (Gernikako merkatua) eta **ekoizpenaren parte handi bat merkaturatzen du jatorri-deiturekin, Kalitatezko Eusko Labelarekin edo produktu ekologiko etiketarekin** (Gernikako babarruna, Gernikako piperra, Idiazabal gazta, etab.). Gainera, **produktu zehatzen irudi-marka dauka** (Gernika-lumo), hortaz, produktuei eta ondorioz nekazarien errentari **balio erantsio** ematen diete.

Bestalde **basogintza sektorea** aipatu beharra dago. Busturialdean indar handia du, basogintza aberastasuna eta basogintza kultura egongorra daude. Azpimarragarriak dira lehenengo eraldaketa jarduera eta biomarasen inguruan merkatu berriak garatzeko aukerak. Era berean, esperientzia handia duen eta eraldaketan *jarduten* dakien kontserba sektorea dago; baita duela gutxi garatutako **mahastizaintza eta ardogintza sektorea** ere, eskaera handia duen sektore gainerakorra.

LA3. Eskualde mailan modu bateratuan lan egiteko ohitura dago, LGE izanik eskualde ikuspegiko gaien inguruan hausnarketa biltzen eta ahalbidetzen duena.

3.3.2. Faktore kritikoak

FK1. Koordinazio zailtasunak daude patronatuaren eta eskualdeko garapen sozioekonomikoan parte hartzen duten beste agenteen artean. Horiek Urdaibai Erreserba kudeatzen dute eta proiektuen garapena mugatzen dute (edozein enpresa sektore/jarduera (industria, nekazaritza), bestek).

FK2. Nekazaritza jardueraren beherakada: arrazoi hauek sektorearen erakargarritasuna gutxitzen dute: betetako azalera moduan dauden ustiapen kopurua gutxitzea, horien tamaina txikia, lehen sektorean jarduten duen populazioa zahartzea, belaunaldi ordezkapen falta, laneskua eskuratzeko zailtasun handiak, ospea galdutako eta sozialki gutxi baloratutako sektorea eta beste sektoreetan lanbide eta ekonomi aukera handiagoak egotea. Nahiz eta nekazaritzaren eta basogintzaren ikuspegitik balio handia duen lurra izan, eskuratzeko zailtasunak daude (espekulazioa, lurraren erabilera kalifikatzea (Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana). Baserria ustiapen unitate moduan desagertzea eta egoitza moduan bakarrik erabiltzeak ondorioak dakartza, batez ere inguruaren mantenuan.

Lehen produktuen eraldaketan jarduera eskasa, salbuespena dira txakolina eta egurra (edonola ere, lehen eraldaketara mugatzen da).

FK3. Nahiz eta eskualdean basogintza sektoreak garrantzia izan, ez dago behar bezala baloratuta eta nahiz eta **egurra eraldatzen lan egiten duten enpresak egon, bigarren eraldaketarik ez dago.**

FK4. Arrantza sektorearen beherakada.

4. ESKUALDE GARAPENAREN IKUSPEGIA

Eskualdearen egoera eta ditugun ahalmen eta oztopo nagusienak ezagutzeaz gain, inportantea da **identifikatzea nolako landa eremuak nahi ditugun, hau da, nora iritsi nahi dugun garapen prozesuaren bidez.**

10-15 urte bitarteko denboraldia aurreikusi da eta, alde horretatik, LGP hau da iritsi nahi dugun eszenategi horretara pausoz pauso gertaurretako gaituen tresna.

Horretarako, hausnarketa bat egin da etorkizunari begira, eragile giltzarriekin batera, eta lortu den argazkia da **“nahia”**, lortu daitekeen nahia.

“Eskualdean oreka egotea lurraldeari eta arlo sozioekonomikoari dagokionez; ingurune naturalarekin errespetua duen jarduera ekonomikoa egotea, nola arduraldi eskusiboan, hala arduraldi mistoan, helburu hauek lortzeko: paisaiaren mantenuan laguntzea, kalitatezko produktuen iturri izatea eta bizitzeko modu duina mantentzea, baita Busturialdeko identitate markak mantentzea ere.”

5. PLANGINTZA

5.1. ARDATZAK, HELBURUAK ETA ESTRATEGIAK

Alde batetik, **lehiakortasunerako abantailak** eta **faktore kritikoak** ditugu; horiek gaur egungo egoera laburtzen digute. Bestetik, **ikuspegia** dugu, zer lortu nahi dugun esaten diguna. Orain, plangintzaren bidez, gaur egungo egoeratik lortu nahi dugun egoerara joateko bidea diseinatuko dugu.

Plangintza hiru mailatan egin da, elkarrekin lotuta doazen mailatan; maila batek bestea dakar.

→ **Ardatzak**, lan ildo nagusiak.

→ **Helburuak**, ardatz bakoitzea lortu beharrekoak 2007-2013 denboraldian

→ **Estrategiak**, helburuak lortzeko bidea erakusten dutenak.

Metodologia atalean aipatu dugun legez, jarduera edo egitasmo zehatzak urtero definituko dira **Eskualdeko Urteko Kudeaketa Planean**.

Hauek dira Busturialdea eskualdeko ardatz nagusiak:

1. Eskualde kohesioa eta lurralde antolamendua
2. Dibertsifikazio ekonomikoa
3. Bizi kalitatea
4. Lehen sektorea

5.2. PLANGINTZAREN KOADRO NAGUSIA

Hona hemen ardatz bakoitzeko koadro bat. Koadro bakoitzean, planteatu diren helburuak eta horien adierazleak agertzen dira, eta baita helburu horiek lortzeko erabiliko diren estrategiak ere.

1. ARDATZA: Eskualde kohesioa eta lurralde antolamendua				
HELBURUAK:	Adierazleak	Balioa gaur	Balioa 2010	Balioa 2013
1. Eskualdeko gaien mahaia kontsolidatzea, proiektu estrategiko bateratuak garatzeko.				
Estrategiak:				
1.1 Definitu eta adostu eskualdeko gaien mahaiko helburuak.				
1.2 Lan eremuak identifikatu eta garatu.				
HELBURUAK:	Adierazleak	Balioa gaur	Balioa 2010	Balioa 2013
2. Foroetan parte hartze aktiboa lortzea, landa eremuetako garapenaren inguruan eztabaidatzeko: Lurraldearen Zatikoa Plana, Sektore bakoitzeko planak,...				
Estrategiak:				
HELBURUAK:	Adierazleak	Balioa gaur	Balioa 2010	Balioa 2013
3. Urdaibai Erreserba Patronatuaren eta eskualdeko agente ezberdinen arteko koordinazioa hobetzea.				
Estrategiak:				
3.1 Erabilera eta Kudeaketarako Plan Zuzentzailea bultzatzea/ eguneratzea, Udalen parte hartze aktiboarekin (lurraren erabileraren azterketa zehatza barne hartzen du).				
HELBURUAK:	Adierazleak	Balioa gaur	Balioa 2010	Balioa 2013
4. Eskualdea eta bere erlazioak antolatu.				
Estrategiak:				
4.1 Garraioa eta komunikabideak optimizatzea.				

2. ARDATZA: Dibertsifikazio Ekonomikoa

HELBURUAK:	Adierazleak	Balioa gaur	Balioa 2010	Balioa 2013
1. Jarduera ekonomikoaren sorrera bultzatzea modu iraunkorrean.				

Estrategiak:

- 1.1 Eskualdea sentsibilizatzea nekazaritzako elikagaien enpresa txikiak, industria eta zerbitzu enpresak bultzatu/lagundu behar direla modu ordenatuan, horientzat zuzendutako guneetan ezartzeko, nola erakunde mailan, hala populazio mailan orokorrean.
- 1.2 Enpresa hazitegiak sortzea.
- 1.3 Eskualdearentzako gidari diren proiektuak identifikatu eta sortu.
- 1.4 Inguruko turismoarekin eta artisautzako produktuekin zerikusia duten denda txikiak bultzatzea.
- 1.5 Beste negozio unitate batzuk bultzatzea.
- 1.6 Lana antolatzeko eredu berriak lantzea, IKTak erabiliz.

HELBURUAK:	Adierazleak	Balioa gaur	Balioa 2010	Balioa 2013
2. Energia berriztagarriekin zerikusia duten egiturak/enpresak bultzatzea, sortzea eta garatzea.				

Estrategiak:

- 2.1 Foro/ laneko mahai baten sorrera bultzatzea, energia berriztagarriekin zerikusia duten proiektuak aztertzeke eta abian jartzeko.

HELBURUAK:	Adierazleak	Balioa gaur	Balioa 2010	Balioa 2013
3. Ikerketa, garapena eta berrikuntzarekin zerikusia duten egiturak bultzatzea, sortzea eta garatzea.				

Estrategiak:

- 3.1 Elikagaien teknologiarekin zerikusia duten enpresak/parkeak garatzeko aukera aztertzea.
- 3.2 Ezagutzaren kudeaketarekin zerikusia duten enpresak/parkeak garatzeko aukera aztertzea.
- 3.3 Ingurumen edo/eta landa gunearen kudeaketarekin zerikusia duten enpresak/parkeak garatzeko aukerak aztertzea.

HELBURUAK:	Adierazleak	Balioa gaur	Balioa 2010	Balioa 2013
4. Turismo sektorea garatzea eskualde mailan, turismo mahaia.				

Estrategiak:

- 4.1 Turismo gaietan jarduten duten agente ezberdinen arteko koordinazioa mantentzea.
- 4.2 Gidari diren proiektu estrategikoak bultzatzea eskualde mailan.
- 4.3 Jarduerak batera abian jartzea, eskualdea eta bere produktuak sustatzeko.
- 4.4 Dauden turismo baliabideak hobetzea eta balioztatzea.



4.5 Sukaldaritza eta ostatu sektorea garatzea.

3. ARDATZA: Bizi kalitatea

HELBURUAK:	Adierazleak	Balioa gaur	Balioa 2010	Balioa 2013
1. Landa populazioari oinarrizko zerbitzuak eta ekipamenduak egokitzea eta erraztea.				

Estrategiak:

- 1.1 Gizarte eta kultura zerbitzuen eskaintza egokitzea landa eremuko berezitasunetara.
- 1.2 Osasun zerbitzuen eskaintza egokitzea landa eremuko berezitasunetara.
- 1.3 Hezkuntza zerbitzuak mantentzea eta hobetzea.
- 1.4 Ekipamenduak eta zerbitzu sozio-kulturalak eta zerbitzuetakoak mantentzea eta kontsolidatzea.
- 1.5 Etxebizitzarako sarrera hobetzea.
- 1.6 Kirol instalazio eta ekipameduen eskaintza egokitzea.
- 1.7 Merkataritza eta zerbitzu azpiegiturak ezartzea bultzatzea: gertuko denda txikiak, kutxazainak...
- 1.8 Eskuragarritasuna hobetzea euren ezaugarri fisikoengatik mugikortasun murrizta duten udalerrietan.

HELBURUAK:	Adierazleak	Balioa gaur	Balioa 2010	Balioa 2013
2. Oinarrizko azpiegiturak bermatzea landa eremuan (elektrizitate hornikuntza eta garraioa, uraren saneamendua eta hornikuntza, errepideak, etab.)				

Estrategiak:

- 2.1 Eskualdeko hutsuneak identifikatu eta lehentasuna eman.
- 2.2 Garraio energetikoaren arazoak konpondu.

HELBURUAK:	Adierazleak	Balioa gaur	Balioa 2010	Balioa 2013
3. Landa gunetako ingurua zaindu eta mantendu. (Ingurumena eta ondarea)				

Estrategiak:

- 3.1 Landa gunetan ingurumen aldetik degradatuta dauden tokien identifikazio eta berreskurapena.
- 3.2 Dagoen ondare historiko-kulturala berreskuratu eta balioztatu.

4. ARDATZA : Lehen sektorea

HELBURUAK:	Adierazleak	Balioa gaur	Balioa 2010	Balioa 2013
1. Nekazaritza ustiapenak mantentzea.				

Estrategiak:

- 1.1 Ustiapenen errentagarritasuna hobetzea.
- 1.2 Asoziazionismoa bultzatzea.
- 1.3 Nekazaritzako ustiapenak modernizatzea (makinaria, eraikinak eta instalazioak).
- 1.4 Jarduera eta ekoizpena dibertsifikatzea.
- 1.5 IKTak bultzatzea sektorean.
- 1.6 Lurra eskuratzen laguntzea: lursailen kontzentrazioak, nekazaritzako herrixkak...
- 1.7 Sartze berrien alde egitea eta sektorea gaztetzea (Gaztenek).
- 1.8 Ekoizpen ekologikoa eta ordezeko laboreak (kiwi) bultzatzea eta/edo garatzea.

HELBURUAK:	Adierazleak	Balioa gaur	Balioa 2010	Balioa 2013
2. Paisaia mantentzea.				

Estrategiak:

- 2.1 Nola jarduera mistoa (arduraldi partziala), hala arduraldi eksklusiboa aztertzea.
- 2.2 Nekazaritza eta basogintza praktika onak: sentsibilizazioa, kontzientziatzea eta informazioa.

HELBURUAK:	Adierazleak	Balioa gaur	Balioa 2010	Balioa 2013
3. Basogintza jarduera mantentzea eta dibertsifikatzea eta dagoen basogintza aberastasunaren aprobeixamendua hobetzea				

Estrategiak:

- 3.1 Lehen eta bigarren eraldaketa laguntzea/garatzea.
- 3.2 Basogintza kudeaketaren ziurtagiria bultzatzea..
- 3.3 Egurraren erabilera ezberdinak sustatzea: eraikuntza, altzariak...
- 3.4 Prestakuntza bultzatzea basogintza sektorean.
- 3.5 Teknifikazioa eta mekanizazioa hobetzea basogintzako lanak egiterako garaian.
- 3.6 Gizartea sentsibilizatzea basogintza masaren erabilerei eta funtzioei dagokienez: CO2 finkapena, klima aldaketaren arintzea, etab.
- 3.7 Energia berriztagarriekin zerikusia duten proiektuak abiarazten laguntzea eta garatzea.
- 3.8 Mendiak duen olgetarako funtzioa garatzea: aisialdia eta atsedenekua.

HELBURUAK:	Adierazleak	Balioa gaur	Balioa 2010	Balioa 2013
4. Gizarteak landa eremuak duen funtzio anitza balora dezan lortzea eta horren inguruan kontzientziatzea.				



Estrategiak:				
4.1 Sentsibilizazio kanpainak diseinatzea.				